

“Gabon dut anuntzio, desinteresatu...”

*Izenburuko hitzak Bitoriano Gandiagaren gabon-olerki batekoak dira



Konturatzerako gainean dira aurtengo Eguberri jaiak ere. Udazken gehiena negu giroan pasa ostean iritsiko dira Gabonak, gabon-kantak, Olentzero, eta gainontzekoak. Urteroko ohiturari jarraituta, aurten ere izango da hamaika bide Zerainen Gabonak ospatzeko.

Abenduaren 24an, etxez etxe kantuan ibiliko dira herriko bi talde. Herriko eskolako haurrak eta gurasoak goizetik bakarrik ibiliko dira. Biltzen duten dirua eskolaren beharretarako eta El Salvadorgo San Dieguitoko esko-

lari laguntzeko izango dira. Bestetik, herriko beste talde bat egun guztian zehar ibiliko da. Batutako dirua Oa kultur elkarteko eta Katekesiko behar eta ekintzetarako erabiliko da. Iluntzean, 7ak aldera, Olentzero menditik plazara jaitsiko da. Lehenik Uharka abesbatzak kantatuko dio; ondoren haurrei oparitxoak banatuko dizkie. Eta mendian erretako gaztainak eta ardoa ere ekarriko ditu. Plaza aldetik etxeetara erretiratuko gara zeraindarrok; Olentzerok berriz gau guztiko lanari ekingo dio.

Abenduko kontzertua eskaini du Uharka koruak



Zeraingo Uharka abesbatzak, abenduaren 14an, igandea, kontzertua eskaini zuen Zeraingo elizan. Iaz hasitako bideari jarraituz, herriko kantariak hainbat abesti kantatu zituzten herritarren aurrean. Kontzertuan, Uharkakoez gain,

Lazkaoko Orobione jubilatuen koruak ere parte hartu zuen. Guztien artean, bildutakoen belarriak goxatzea lortu zuten. Saioa amaitu ostean, Oa Kultur Elkartearen laguntzaz, hamaiketakoa egin zuten guztiak elkarrekin.

Su hermandadearen bilera arrakastatsua

Duela dozenaka urtetatik dagoen Zeraingo su hermandadeko kideek abenduaren 14an egin zuten bilera. 45 bat lagun elkartu ziren guztira eta estatutuaren berrikuntza errepasatzeko balio izan zuen batzarrak. Gainera, hermandadeak nola funtzionatzen duen ezagutu, gustatu eta sei kide berri ere sartu dira. Hermandadeko partaide guztiak urte amaiera aurretik sinatu beharko dute udaletxean dagoen estatutua, kidetza balioztatzeko. Hemendiak aurrera, bi urtez behin, azaroko hirugarren igandean elkartuko da su hermandadea.

Kalitatearen bidetik


Duela bi urte Zeraingo turismo zerbitzuek (tabernak, landetxeak, albergea, etb.) turismoko kalitatezko praktika onen ziurtagiria lortu zuten. Guztiak auditoria pasa berri dute eta kalitatea bermatuta geratu da.

Autobusa Kontseiluaren festara



Abenduaren 13an BECen Euskararen Kontseiluaren 10. urteurren festa ospatu zen "Euskaraz Bai" leloarekin. Zeraindik autobusa antolatu zuten Guraso Elkarteak eta Kultur Elkarteak. 30 bat lagun joan ziren ekitaldira.

"Basoak klimaren aldaketaren aurrean" izeneko erakusketa egon da Kultur Etxean abenduaren 10etik 15era. Eusko Jaurlaritzak antolatu, eta Oa Kultur Elkarteak Zeraina ekarri duen erakusketa izan da.



Basazabalgo Jabier Muñoaren gazta munduko onenen artean



Austrian azaroaren 8an izan zen naziarteko 9. Käsiade txapelketan Basazabalgo Jabierrek hirugarren saria, brontzekoa, jaso du Idiazabal izendapeneko ketutako gazta batekin. 291 gaztaren artean lortu du Jabierrek saria. Zorionak!

Argazki zaharren herri-artxiboa

Zeraingo argazki zaharrekin osatzen ari garen herri-artxiboa martxan da. Etxe guztietara bidalitako gutunean jarri bezala, guztien laguntza eta kolaborazioa beharrezkoak dira horretarako. Herritar talde bat argazkiak biltzen ari da etxez etxe; beraz aurretik bakoitzak bere argazki batzuk aukeratuta edukitzeak lana asko erraztuko du.

Enasa

Akordatu da Xanti Muñoa, hitz hau nondik jaso den. Olanoko Joxe Alustizak eman zigun hitz horren berri, Oihartetik behera Mutiloara doan bide berrian berekin topo egin genuen batean. Hasieratik hartu nion gustua Joxek azaldutako hitz horri: inoiz entzun gabea nuen Goierriin, hiztun garbi baten ezpainetik jaso zegoen eta berak ere bazituen bere zalantzazko aipamenak, hitz horren gainean. Galtzen ari diren hitzen katalogoan sartzeko egoki-egokia zirudien, hortaz. Horregatik dakarkigu gaurkoan zeraindarron begien bistara. Begien bistara eta, bide batez, zenbaiten belarrietara.

Lanbide eta lan-tresna zaharrak galtzearekin batera, hitzak ere galdu egiten dira sarri: hori esaten ari gara etengabe. Gizartearen berrikuntza teknologikoa, ekonomikoa eta soziokulturala dira galera horren "errudunak" edo eragileak: horientatik dago euskarazko hainbat hitz galtzeko zorian. Berrikuntza ekonotekniko hori ez da, ordea, hitz zaharrak galtzearen "errudun" edo erantzule bakarra. Erdal eragina izan ohi da, askotan, euskarazko hitz jatorren galeraren iturri. Hizkuntza bi elkarren pegante daudenean, gure artean euskara eta gaztelania dauden moduan, ukipen edo kontaktu modu horrek zeresan handia izan ohi du hiztunen ezpain-lumetara iristen diren hitzetan. Erdal interferentziak alde batera zokoratu ohi ditu euskarazko hainbat hitz eta, horien ordez, erdarazko hitzak erraz asko gureganatzen ditugu: gurasoen eta aiton-amonen hitz-altxorra murriztuz, mehartzuz eta bestelakotuz goaz, jakinaren gainean edo ustez uste gabe, horien ordez bestelako hitzak, azken orduko maileguak sarri, gureganatzen ditugularik. Eguneroko hizkera beteta daukagu horrelako adibideez: garai batean *hirugiharra* esaten geniona *beikon* (ingelesez, *bacon*) bihurturik daukagu; era berean, laruzko zamarraren ordez *pielezko abrigoak* ikusten dira orain. Aldekotxe dotorezia. Ez dago hor kasualitate handirik: *pielezko abrigoa* zezakeen jendea (batez ere status sozio-profesional erdi-altukoak) hasi zen erosten. Haien etxeetara iritsi zen luxuzko produktu hori lehenik. Bertako etxeoandreengan bereziki, eta horra: *señora* horiek ziren erdararekiko interferentzia handiena zutenak beren eguneroko mintzajardun arruntan. Erdaldun-jende aberatsari ikusi zioten *abrigo de pieles* janzen eta esaten, eta senarrak halakorik erosi zienean hitz eta

guzti etxeratu zuten produktua: *pielezko abrigoa*. Horrelako eta beste era askotako motibo sozialek, ez linguistika hutsekoek, eragiten dute maizenik hitz-altxorren berrikuntzan.

Gaurkoan ez goaz ordea interferentzia modu horretaz hitz egitera, beste zerbaitez baizik. Euskal sinonimoen arteko lehiaketaz, lexiko-lehiaketaz, jardungo dugu gaurkoan. Zer gertatzen da euskal sinonimo bi edo gehiago elkarren lehian hasten direnean? Zer gertatzen da euskal jatorriko hitz bik edo gehiagok adiera bera (edo oso antzekoa) dutenean? Eman dezagun, esate baterako, lau hitz ditugula Goierriin aukeran, gaztelaniarazko "descuidado, poco aseado, sucio" esateko: *enasa*, *baldana*, *baldarra* eta *narratsa*.

Ez dute seguru asko adiera berbera, eta baliteke hitz horietariko bat leku batean erabiltzea batez ere eta bestea beste leku batean. Baina sinonimotzat har ditzakegu, halere. Hiztegiari begiratzen badiogu, behintzat, horra zer ageri den:

Baldana: Bizkaian eta Gipuzkoan (Azkueren esanean), baita han-hemenago idazle ezagunen luman ere, "abandonado, desaliñado, desidioso, torpe" moduan definiturik dator.

Baldarra: Bizkaian eta Gipuzkoan "torpe, desmañado, desgarbado, desaliñado, haragán".

Enasa: Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian "descuidado, poco aseado, sucio, .."

Laugarren bat ere erantsi ahal izango genioke hitz-zerrenda horri: *narratsa* (edo *narrasa*).

Baliteke urrunxeago ibiltzea azken hitza, adiera aldetik: *baldarra* eta *narratsa* ez dira zeharo gauza bera. Diferenteak dira neurri batean, baina ez dabilta zeharo urrun. Azkeneko hau alde batera utziaz ere, bistan da *baldana*, *baldarra* eta *enasa* oso antzekoak direla adieraz: ez behar bada zeharo adiera berekoak, baina bai aski antzekoak. Hots, sinonimoak dira.

Gutxi erabiltzen da *enas* hitza, gaur egun, Zerainen. Oso gutxi. Erabat ezezaguna denik ere ezin esan, ordea. Galdezka hasi da Elena, bati eta besteri, eta horra zer emaitza jaso duen. Etxean

bertan, Otatzan alegia, inork ez du hitz hori gogoan. Bada hori zerbaiten seinale, gordeleku sendoa agertu baita Otatza orain arteko peskisetan. Etxetik kanpora hasi da ondoren: Joxemari Etxaluzeri eta Maritere Arostegiri galdetu die, *enasa* zer den ba ote dakiten. Hasieran ezetz erantzun dute batak zein besteak: ez dutela hitz hori erabiltzen; inoiz entzun izanik ere ez dutela gogoan. Gero, ordea, hitzarekin jira-bueltakak hasita, baiezko itxura hartua izan behar dio Joxemari. Baietz, umetan akordatzen dela "aldegin zak emendio, mutiko enas hori!" edo antzeko zerbait entzuna. Izan da, azkenik, hitzarekin ondo akordatzen zenik: Ariztizabalgo Joxemanuk, herriko alkateak, hasieratik beretik esan du baietz. Etxean aditua du hitza, umetan. Ohar jakingarria erantsi du, halere: "aditu bai, baina eballi apenas". Horra, beraz, zeharo ezezaguna zirudien hitza nola ez den hain arrotza.

Arrotza ez, baina oso arrotza bai. Orain arte ikusi izan ditugun hitz gehienak baino atzenduago dago *enas* hori, zeraindarraren ezpainetan. Zergatik ote? Egia esateko, eta egia zor dizuegu noski, ez dakigu justu zergatik. Susmorik badugu ordea, eta susmo horren berri emango dugu hemen. Euskarazko beste hiru sinonimoren konpetentziak, norgehiagokak, jan dio lekua *enas* horri. Lau hitz ditugula oso parekoak esan dugu goian. Horrelako kasuetan ez da hain harrigarria gertatzen, hiruzpalau sinonimoren artean bat (edo gehienez bi) nagusitzea. Bat edo bi nagusitzea eta beste biak edo hiruak, neurri berean, baztertuz eta galduz joatea. Horixe gertatzen ari ote den susmoa dugu: *baldarra* eta *narratsa* gailentzen ari direla, *enasa* eta *baldana* galduz doazelarik.

Pena da, zinez, hitz adierazkorretan gertatzen ari den murrizketa hori: hizkuntzaren osasuna hitz horiek sinalatzen baitute, hitz teknikoek bezainbat edo are gehiago. Zertarako nahi dugu hizkuntza, eguneroko sentipenak eta poz-beldurrak, gorrotoak eta esperantzak, maitasun-bulkadak eta ezin ikusiak adierazteko ez bada? Gatz-piperrez oraturiko hizkuntza bizia, jende arruntaren eguneroko berbakera gazi-goza, izan ohi da gurasoetatik seme-alabetara transmititzen dena. Era horretako hitzak galtzen direnean, beldur izatekoa da transmisio naturala bera ahultzen ari ez ote den.

Mikel Zalbide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

AZAROA	al	ar	az	og	or	lr	ig
						1	2
Euria (l/m)	GUZTIRA: 268 l.					0	34
C° altuena	ALTUENA: 18°					9	12
C° baxuena	BAXUENA: -1°					6	7
	3	4	5	6	7	8	9
Euria (l/m)	9	0	19	8	6	0	0
C° altuena	8	11	14	11	14	12	15
C° baxuena	7	6	5	10	7	7	7
	10	11	12	13	14	15	16
Euria (l/m)	0	12	14	9	5,5	0,5	3
C° altuena	16	18	12	9	10	8	10
C° baxuena	7	9	7	7	7	7	8
	17	18	19	20	21	22	23
Euria (l/m)	2	13	14	0,5	8	19	16
C° altuena	10	9	9	11	11	12	12
C° baxuena	8	8	9	7	8	9	9
	24	25	26	27	28	29	30
Euria (l/m)	65	7,5	0	0	0	1	2
C° altuena	11	8	5	2	6	9	9
C° baxuena	5	3	-1	1	-1	6	6

Euria, euria, eta euria; eta euri gehiago

Euria goian eta behean. Modu horretan joan zaigu azaroa: bustitik. 268 litro jaso ditugu guztira eta hori benetan asko da. Guk datuak ditugun azken 10 urteetako azaro euritsuena izan da. Bigarren euritsuena 2000. urtekoa izan zen 244 litroekin. Iaz berri, 50 litro eskas bota zituen hil berean. Orokorrean hartuta ere, 268 ez da zenbaki makala. 10 urtean bi hilabete baino ez dira izan bustiagok: 2002ko abendua (314 litro) eta iazko martxoa (320 litro). Temperatura goxoak ere neurrian izan ditugu; altuena 18 gradu baino ez. Baxuenak berriz, zerope-tik joan zaizkigu, eta izotza ere izan dugu. Barru-giroa azaroan!

Kurriloak bisitari



Negutik ihesi doazen kurriloek atsedenaldira hartu zuten Kozmendi atzeko zelaietan.

Xabier Dorronsorok Usurbilgo txapela irabazi du



Xabier Dorronsoro aguazilak, Usurbilgo aizkora txapelketa irabazi du abenduaren 14an. Usurbilen jaiotakoaren artean jokaturako txapelketan

Bolatea: Olentzero Saria abenduaren 20an

Abenduaren 20an, larunbata, jokatu da aurtengo Olentzero saria bola lehiaketa. Liztormendi bolatokian Gipuzkoako bolari onenak bilduko dira goizez eta arratsaldez.



Oporrak Ostatur

Ostatu jatetxeak atek itxita izango ditu bi aste pasatxoan. Zorionez, oraingoan ez da izango suagatik, oporreatatik baizik. Abenduaren 26tik urtarrilaren 11ra oporrak hartuko dituzte.

Postontzien izenak

Herriguneko, eta batez ere Gurea Taldeako, hainbat postontzi edo buzoiek ez dute izenik. Horrek zaildu egiten ditu buzoneo lanak. Mesedez identifikatu gutunontziak.